

# IV. Justizia eta Hizkuntza

## Kronika

Espainiako Erkidego elebidunetan Justizia Administrazioaren eguneroko jardunaren gainean nola aplikatzen da, eta nola aplikatu beharko litzateke hizkuntzen ofizialkidetasunaren printzipioa? Hori da, hain zuzen ere, bere hitzaldian I. AGIRREAZKUENAGAk landuko duena<sup>1</sup>.

### 1. Hizkuntzaren gaineko printzipio nagusiak

Ezer baino lehen, hizkuntzaren gaineko eztabaida baretu eta razionalizatu egin behar da. Hizkuntza mailako eskubideen interpretazioak ez du zergatik asaldurara eta juridikoak ez diren argudioen mundura eraman behar. Gai hauetaz aritzeko badago modu baketsurik, argudio juridikoen mundura mugatzen denik. Jarrera horretatik abiatzen da, hain zuzen ere, I. AGIRREAZKUENAGAREN jarduna.

Argumentazio juridikoan lehendabizi eman behar den pausoa zera da: zein printzipiok zuzentzen dute eremu hau? Hizkuntzaren gaineko printzipio nagusiak bi dira, biak ere Konstituzioak jasotakoak: ofizialtasuna eta hizkuntzagatik baztertzearen debekua. Horietatik eratorren dira beste bi printzipio: gaztele-  
ra ezagutzeko obligazioa batetik, eta erkidegoaren berezko hizkuntzarena bestetik.

Lehenengo aipatutako printzipioaren ondorio juridikoak ofizialtasunarenak, alegia askotarikoak dira; nagusia zera da, aginte publikoek hizkuntza ofizialen irakaskuntza eraginkorra eskaini beharko dutela hizkuntza gaitasuna bermatzeko. Honek ekarriko du ezin alegatu izatea hizkuntza horien ezagutza eza, aginte publikoen hezkuntza plangintza zuzena eta eraginkorra izan denean behintzat. Bestalde, ofizialtasun bikoitzaren kariaz, hiritarrak edozein hizkuntza ofizial aukeratu ahal izango du Administrazioarekiko harremanetan. Administrazioak, berriz, barnerako harremanetan hizkuntza propioa eskusiboki erabili ahal izango du, ez ordea, *ad extra*, non, esan bezala, hiritarrak aukeraturako hizkuntzan erantzun beharko dion.

Bigarren printzipio nagusia, hizkuntzagatik diskriminatzeko debekuarena dela esan dugu. Konstituzioak zuzenean jasotzen ez badu ere, oinarritzko eskubide hori Nazioarteko Hitzarmenetan bada-  
go, eta, beraz, Espainiako ordenamenduaren baitara pasa da zuzenean, Konstituzioaren 10.2 artikulua-  
ren mandatuz (*Vid.* Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 2.2 eta 27 artikulua eta Giza  
Eskubideen Babeserako Europar Hitzarmenaren 14 art.).

### 2. Justizia Administrazioari langileen hizkuntza gaitasuna, indarrean dagoen legeriaren arabera

Nola jokatzeko dute adierazitako printzipioek Justizia Administrazioak eskaini beharreko zerbitzuaren baitan? Galdera honi erantzutera dator hitzaldiaren beste zatia. Azpimarragarria da Zuzenbide Administrazio boko katedradunak gai honetan indarrean dagoen araudiaren eta jurisprudentiaren *status questionis* xehea eta argigarria egiten duela. Ondoren etorriko dira, behin *de lege data*-ko hausnarketa egin ondoren, *de lege ferenda* egiten dituen gogoetak (*Vid.* elkarrizketa).

Espainiako erkidego elebidunetan eskaintzen diren Justizia zerbitzuak islatuko litzukeen argazki bat egingo bagenu, aitortu beharko genuke, zoritxarrez, hiritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko egin diren

1. Hitzaldi hau, "Balance conclusivo sobre la Administración de Justicia en un Estado plurilingüe" izenburupean eman zen, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorraren eskutik antolatutako *Administración de Justicia y Lenguas cooficiales* ikastaroaren baitan, Madril, 1999ko urriaren 18tik 20ra. Gaztele-  
raz, honako argitalpenean agertuko da: I. AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA (coor.). "Administración de Justicia en un Estado Plurilingüe", In: *Cuadernos de Derecho Judicial*, Madril: CGPJ, 2000.

ahaleginak bakanak eta isolatuak izan direla. Epaille banakoen aldetik etorri dira horiek, eta ez arduradunen plangintza baten ondotik.

Bi dira, bereziki, Justizia Administrazioaren baitan hizkuntza koofizialen erabilera normaldua eragotzi duten arrazoiak. Batetik, Administrazio horretako funtzionarioek omen dituzten eskubideak, beren *statu quo*-aren babesarekin zerikusia dutenak; eta, bestetik, eztabaida politizatu izana eta plangintza eza.

Indarrean dagoen legediaren arabera, zein da epaitegietako langileek izan behar duten hizkuntza gaitasuna? Justizia Administrazioako ofizial, agente eta laguntzaileei dagokienez, ED 249/1996ak dio hizkuntza ezagutzea aintzat hartuko dela langile horien hautaketa eta barne-promozioetan. Ordea, Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako D 63/1998an esaten zen euskara jakitea beharrezkoa den zenbait lanpostu definitu ahal izango zirela. Arau horren gainean eskuduntza gatazka planteatu zuen Gobernu zentralak, eskuduntza hori berea zela argudiatuz. Bestalde, ez da dudarik, ED 249/1996aren arabera, Jaurlaritzak egindako lanpostuen proposamena Justizia Ministerioak onartu behar duela. Beraz, kontuan izanik Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak (CGPJ-AJKO) Euskal Gobernuaren proposamen hura onetsi duela, ez da ikusten Ministerioak zergatik ukatu beharko lukeen esandako proposamena, puntu horri dagokionez bederen.

Bigarrenik, idazkariei dagokienez, ED 429/1988, gorputz horren Erregelamendu Organikoa onartzen duena, izan behar da kontuan. Arau horrek esaten zuen hizkuntzaren ezagutza sei urteko antzintasunaren pareko izango zela hizkuntza hori ofiziala den erkidegoan bakanteak bete behar zirenean. Ordea, Auzitegi Gorenak (AGE, 1995eko azaroaren 7koa) neurri hori "nabarmenki desproporzionatua" zela esan zuen. Ondorioz, gaur egun idazkariek ez dute inongo hizkuntza eskakizunik, eta ez zaie meritu gisa ere inola ere baloratzen ezagutza hori.

Eskalafoian gora goazela, Fiskaltzari dagokionez, L 50/1981, Gorputzaren Estatutu Organikoa arautzen duenak, ez du hizkuntzaren aipamenik egiten.

Azkenik, AJKOren 1998ko otsailaren 25eko Akordioak xedatzen du Erkidegoaren berezko hizkuntza jakiteak antzintasuna gehitzearen balioa izango duela epaille eta magistratuek eskatutako trasladoetarako. Auzitegi Gorenaren 1999ko urriaren 15eko eta 21eko sententziek ontzat jo dute neurri hori, esanaz Botere Judizialaren Lege Orokorren 341 artikulua aipatu "meritua" kontsidera daitekeela. Baina azken artikulua honek Erkidegoko berezko hizkuntza jakiteak meritua "preferentea" izan behar dela dio, eta orain meritua ez dirudi horrelakoa denik.

Kronikaren egilea: Itziar ALKORTA IDIAKEZ  
Zuzenbide Zibileko irakaslea  
Euskal Herriko Unibertsitatea



## Elkarrizketa

Iñaki AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA

Administrazio Zuzenbideko katedraduna  
Euskal Herriko Unibertsitatea



### 1.

**Lehen hurbilketa batean, zein da Espainiako Justizia Administrazioaren ezaugarririk nagusia hizkuntza aniztasunaren ikuspegitik, beste eredu gonbaratuekin alderatuz?**

Espainiako autonomia erkidego batzuetan hizkuntza ofizialak bi badira ere, alegia, printzipioz bi hizkuntza horiek balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabil daitezkeen arren, Justizia Administrazioan lan egiten duten pertsonen bakarrik gaztelera jakitea eskatzen zaie. Beraz, Espainiaren kasuan, sekula eta inori, orain arte, ez zaio galdatu Justizia Administrazioan lan egin ahal izateko beste hizkuntza ofizialen ezagupena, eta honek hizkuntza horren normalizazioa ezinezkoa edo oso zaila izatea dakar.

### 2.

**Etorkizunari begira, berma al daitezke euskaldunon hizkuntza eskubideak?**

Inongo zalantzarik gabe; beste Administrazioetan gertatzen den bezala. Alegia, eremu soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza ofizialaren ezagupena baloratu edo galdatu. Horretarako kontuan hartu behar da Justizia Administrazioan lan egiten duten funtzionarioak “kidego nazionalakoak” direla, eta sarreran ezagupen hori galdatzea zaila izan arren, lanpostuen horniketan, ordea, behar denean ez dagoela ezagupena eskatzeko arazorik.

### 3.

**Zuk, Justizia Administrazioan lan egiten duten funtzionarioak mailakatzea eta ezberdintzea proposatzen duzu, ez al da hala?**

Bai noski, arazo ezberdinak planteatzen baitira. Mailaketan lehenik ofizialak, auxiliarrak eta agente judizialak aurkituko ditugu; hauen zereginak beste Administrazioetan maila bereko funtzionarioek betetzen dituztenen berdinak direnez, ez legoke teknikoki inolako arazorik haiei berehalako hizkuntza eskakizuna ezartzeko. Eta berdina gertatuko litzateke mediku-forenseeekin. Baina idazkari judizial, fiskal eta epaileen kasuan arazoak areagotu egiten dira. Halere, arazoak mailakatu egin behar dira eta lehenik erraztenak bideratu.

### 4.

**Halaber, epaileen artean, karrerako funtzionarioak eta gainontzekoak bereiztea proposatzen duzu. Zertan datza bereizketa hau?**

Kontuan hartu behar da printzipioz epaile eta magistratuek karrerakoak izan behar dutela, hots, euren oposizioa gainditu ondoren epaile eta magistratu bezala lan egiten dutela. Praktikan ordea, gure Autonomia Erkidegoan —baita Espainia osoan ere— badaude dezente karrerakoak ez direnak. Hauek, Zuzenbidean lizentziatu soilak dira, lehiaketa bat gainditu ondoren —eta ez oposizio bat— aldi baterako epaile edo



magistratu bezala lan egiten dutenak. Azken hauei euskararen ezagupena galdatzea askoz ere errazagoa da eta, alderantziz, funtzionario direnei derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezartzea zailagoa da. Orobat, kontuan hartu behar da epaileen artean Espainia osoan dagoen mugikortasuna, baina bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetako lanpostuei bakarrik ezarri behar zaie hizkuntza eskakizuna, epaileei ezarri ordez. Honela, epaile batek dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duenean, lanpostu jakin bat beteko du, eta egiten ez duenean, aldiz, beste lanpostu batera joan beharko du.

## 5.

### **Itzulpenak bermatzen al ditu hiritarren hizkuntza eskubideak, hauek Administrazioarekin izango dituzten harremanetan?**

Zalantzarik gabe, hobe da elkar ulertzea, baina itzulpenak eta interpretazioak ongi eginak badaude eta zuzen-zuzenean (interpretazioa) ahozko harremanetan egiten direnean, legezkoak dira. Noski, gaizki eginak badira arazo juridikoak planteatu litezke, eta ongi eginak daudenean, berriz, sistematikoki hizkuntza ofizial bat itzuli beharrean bagaude eta ezin bada zuzenean erabili, "arma prozesalen berdintasun juridikoa" urra daiteke.

## 6.

### **Nola eragin behar du erkidego bakoitzaren barruan errealitate soziolinguistikoak Justizia Administrazioaren langileen hizkuntza eskakizunak ezartzeko orduan?**

Nire ikuspuntutik, errealitate soziolinguistikoak erabat baldintzatzen du langileen derrigorrezko hizkuntza eskakizuna, eta oro har funtzio publikoan erabiltzen diren irizpideak erkidego bakoitzeko Justizia Administrazioan hedatu beharko lirakeke.

## 7.

### **Galiziako eta Kataluniako hizkuntza legeek Justizia Administrazioarekiko harremanetan bermatzen al dizkiete bertako hiritarrei euren hizkuntza eskubideak? Ba al du hemengo Autonomia Erkidegoko legegileak eskuduntzarik eremu honetan?**

Adibidez, Galiziako legeak epaiak espreski galizieraz jasotzeko aukera ematen du, eta hau Konstituzio Auzitegiak ontzat eman du. Kataluniako legeak oraintsu ere bermatu ditu bertako hiritarren hizkuntza eskubideak eremu honetan. Alderantziz, Euskararen Legea oso zaharkiturik geratu da arlo honetan, eta ez ditu argitasunez zehazten epaitegien betebeharrak zeintzuk diren euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen.

## 8.

### **Azkenik, esandako guztiaren arabera, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzek Justizia Administrazioan duten aitorpena bigarren mailakoa dela esan al dezakegu?**

Praktikan, itsua izan behar da horrela gertatzen dela ez ikusteko. Baina, egoerak egoera, ez al da berdina gertatzen gure gizarteko beste eremu gehienetan (adibidez, Ertzaintzan, Osakidetzan eta abar luze batean)? Etorkizunari begira, aurrerapausuak eman behar dira Justizia Administrazioan ere errealista izanik, eremu soziolinguistikoa kontuan hartuz xedeak finkatuz eta mailakatu, eta horrela, epe laburrean lehenik, herritarren hizkuntza eskubideak gune euskaldunenetan eraginkorki bermatuz.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta